

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**199/2020 Foru Agindua, irailaren 2koa, hasierako onespena ematen diona partzuergoaren sareko hornidura orokorra Casablancako industrialdeko hornidura gordetegiarekin – Guardiako lurzoru urbanizaezinetik igarotzen den zatian – lotzeko proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari, Arabako Errioxako Urkidetzak sustatua**

#### AURREKARIAK

Arabako Errioxako Urkidetzak obra lizentzia eskatu dio Guardiako Udalari, partzuergoaren sareko hornidura orokorra Casablancako industrialdeko hornidura gordetegiarekin lotzeko proiektua gauzatzeko, goi presioko sareko edateko urez horni dadin Casablanca (Guardia) eta Carrascal (Lantziego) industrialdeetako hornidura sistema.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen zati dira Arabako Errioxako Urkidetzak aurkeztutako eraikuntza proiektua eta udal arkitektoak egindako txostena.

Guardiako udalerrian proiektuak hartzen dituen lursailak honela daude sailkatuta Guardiako udal plangintzako arau subsidiarioetan:

– 73 sektoreari dagokion lurzoru urbanizagarria: Malpica industriarako sektore berria. Plan partzialari 2008ko martxoaren 14an eman zitzaion behin betiko onespena (ALHAO, 38. zk., 2008ko apirilaren 4koa). Birpartzelazio proiektuari 2010eko irailaren 21ean eman zitzaion behin betiko onespena (ALHAO, 112. zk., 2010eko urriaren 1ekoa). Urbanizatzeko jarduketara programa 2009ko martxoaren 11n onetsi zen behin betiko (ALHAO, 64. zk., 2009ko ekainaren 5ekoa). Urbanizazio proiektuari 2010eko martxoaren 22an eman zitzaion behin betiko onespena (ALHAO, 45. zk., 2010eko apirilaren 26koa). Eremua partzialki urbanizatuta dago. Hoditeria titulartasun publikoko lurretatik igarotzen da, katastroaren arabera.

– Leheneratu beharreko basoguneen babes zonako lurzoru urbanizaezina, Guardiako udal plangintzako arau subsidiarioen 112. artikuluan xedatutakoaren bidez arautua, zeinek onura publikoko eta gizarte intereseko erabilera ahalbidetzen baitituzte.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenerari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak erabilera eta jardueri buruzko 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean baimenduta daude ondoren zehazten diren zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzea beste helbururik ez duten jarduketak: alde batetik, arlo jakin bateko legeriak —aplikatzekoa denak— edo lurraldearen plangintzak interes publikokotzat jo dituenak, eta bestetik, kasu jakinetan, dagokion foru aldundiak interes publikokotzat jo dituenak; bigarren hori, 20 egunetz jendaurrean edukitzeko tramitea bete ondoren, ebazpen baten bidez egingo du.

Bestalde, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 13.2.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, hirigintza eta lurralde antolamendurako tresnek lurzoru urbanizatu bihurtzea aurreikusten edo ahalbidetzen duten landa lurzoruari, jabetza eskubidearen ahalmenen artean dago lurralde 1. zenbakian aurreikusitakoari jarraituz erabiltzeko, gozatzeko eta xedatzeko eskubidea, betiere bateragarriak badira, alde batetik, ahalmen horiek baliatzea, eta, bestetik, lurzoru urbanizatu bihurtzea dela-eta lurralde eta hirigintza antolamenduko tresnan aurreikusitakoa.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak 32. artikuluan 1.a apartatuan ezartzen duenez (urbanizatzeko jarduketa programa onetsi arte, lurzoru urbanizagarrian eta hiri lurzoru finkatugabeen baimendu daitezkeen erabilera eta jardueri buruzkoa da artikuluko hori), lurzoru urbanizagarri eta hiri lurzoru finkatugabe gisa sailkatuta dauden lursailek urbanizatzeko jarduketa programa onetsita eta indarrean ez duten bitartean, lursail horietan ondokoak soilik baimendu daitezke: lurzoru urbanizaezinerako aurreikusi diren erabilerak eta jarduerak, salbuespen batekin, alegia, aurretik dauden baserriak berreraiki ahal izango dira, eta, baratzegaintza edo abelazkuntzako ustiakuntzari lotuta badaude, oin berriko eraikinak altxatu ahal izango dira bizitegirako.

Lurzoru urbanizaezineko erabilerak eta jarduerak lurzoru urbanizagarrian eta hiri lurzoru finkatugabeen baimentzea, haien hirigintza antolamendua urbanizatzeko jarduketa programa abiaraztearen bidez gauzatzen hasi arte, guztiz koherentea da Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 11.2 artikuluan eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak 19. artikuluan ezarritako higiezinaren jabetzaren estatutu araudiarekin, eta lurzoru mota orori dagokion oinarritzko lege edukia edo jatorritzkoa ezartzearekin, zeinaren bidez titularrari ematen baitzaizkio ondasunaren erabilera, gozatzeko eta ustiatze arrunterako ahalmenak, eta baimentzen baitira lurzoruaren landa izaerarekin bat etorritik eta modu arrazionalen baliatze erabilera egokiak eta zehatzak, hirigintzarako erabiltzea edo eraldatzea ez dakarten bitartean, bat etorritik Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuaren 12.1 eta 13.1 artikuluekin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 20, 21 eta 28.3 artikuluekin.

Lurzoru urbanizaezinean baimendu daitezkeen erabileren artean, berariaz Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 21.1.a) artikuluko logikoki kanpoan uzten ditu aurretik dauden baserriak berreraikitzeak aukera, 30. artikuluan arautua, eta baratzegaintza edo abelazkuntzako ustiakuntzari loturiko oin berriko etxebizitzak eraikitzea, 31. artikuluan araubideturik, bi xede horiek bateraezina direlako urbanizatzeko jarduketa programa onestea ekarriko duen hirigintza eraldaketarekin.

Logikoki, kanpoan utzi beharrekoak dira, halaber, interes publikoko zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak, 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan eta Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatuak, salbuespen izaera dutelako, lursailak beren izaeraren arabera erabili, gozatu eta xedatzeko eskubidetik harago baitoaz, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 13.2.e) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, 13.1. artikuluekin lotuta.

Hori dela eta, lurzoru urbanizagarrietatik igarotzen den proiektuaren zatia ezin du interes publikokotzat jo aldundi honek. Udalak zuzenean baimendu beharko du, hala badagokio, aplikatzekoa den hirigintza plangintzarekin bat etorritik.

Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea partzuergoaren sareko hornidura orokorra Casablanca industrialdeko hornidura gordetegiak —Guardiako lurzoru urbanizaezinetik igarotzen den zatian— lotzeko proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari, Arabako Errioxako Urkidetzak sustatua.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. - Izapide egintza ez kualifikatu honen aurka ez dago errekurtsorik jartzerik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 2a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**